

**K**...eta!  
**Kitto!**

2017-XII-29      1040 zkia.

**URTEKARIA  
 barruan  
 2017  
 hilez  
 hile**



**Egin dezagun 2018  
 zorion iturri!**



# KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

## KOMUNITATEAK

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

## AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR  
 Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74  
 Email: keingroup@keingroup.com

# CRF AMOSTEGI

## ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

### \* ERREHABILITAZIOA

- Osakidetza - Aseguruak

### \* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrequentzia) /

Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

### \* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK

- Amatasunerako prestakuntza:

*Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)*

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodiniien... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen

orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.

- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

### \* MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com

RPS 233/123

# ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



 **aldaz**  
horts klinikak · clínicas dentales

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarta@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Eskutitzak

## – Zintzotasun eza –

Harritura nago azken aldean kalean eta sare sozialetan entzuten eta irakurtzen ari naizenarekin. Lehenengo eta behin, azpimarratu nahi dut zintzotasunari ematen diodan garrantzia. Edozein pertsonarengan oso balore garrantzitsua iruditzen bazait, zer esanik ez politikariengan. Somatzen dut hainbat politikarik, behin bozkak bereganatutakotan, pentsatzen dutela txeki zuriaren jabe direla, herritarrokin zintzoak izatea ez dela beharrezkoa.

Jarraitu baino lehenago azaldu nahi dut niretako udaletxea zer den. Niretzat nire etxea ere bada, bertara sartzen naizenean eroso sentitu nahi dut eta horrela izan da azken urteotan. Denon etxea dela sinesten dut, gobernatzea bati edo besteari egokitu ere.

Hori guztia argi lagata, NAN atera edo berrizteko urtarilaren 11n zabalduko den bulegoaren erabilpen politikoa eta, bereziki, PNVren zintzotasun eza salatu nahi dut, proposamena eta beraz erantzukizuna berarena baita.

Erraza da jendea bere alde jartzea galdera bada "zer nahiago duzu, NAN Eibarren egitea edo Do-

nostiara joan behar izatea?". Hasteko, ustez aberzalea den alderdi politikoa batek NAN-ren kudeaketarekin puntuak irabazi nahi izatea akats galanta iruditzen zait. Abertzaletasuna eta NAN bateraezina dira, badaukagu edukitzera behartu egiten gaituztelako, ez boluntarioki. Bestetik, politikariei egia osoa esatea, zintzoak izatea, eskatu beharko genieke. Zein da 10 urtetan behin Donostiara ez joatearren ordaindu beharreko prezioa? Azaldu digute NAN bulegoekin batera datorren atzeritartasun-bulegoak etorkinengan izango duen eragina? Kontatu digute atzeritartasun-bulegoa zabaldu eta gero polizia nazionala gure kaletik ibiliko dela eta horrek izango dituen ondorioak?

Oso argi daukat. 10 urtetan behin Donostiara joatea ez zait tragedia iruditzen; tragediatzat jotzen dut urtarilaren 11tik aurrera arrotza sentituko naizela nirea ere baden udaletxean, herriko etxean alegia, PNVri esker Eibarren falta zitzaien Espainiako indar errepresibo bakarra bertan izango baita.

M.L.D.

## – Eibarko palarixeri erantzuten –

Azkenaldixan keja asko allegatu jakuz Eibarko hainbat frontoien egoeraz, gehixenak Altzubarrenen ingurukak. Aste hontan aurkeztu detsaguz zuzenketak 2018ko udal aurrekontuari, eta aditza emon nahi detsuet Azitzingog industrialdian hainbat hobekuntza egittia proposatu dogula, danera 200.000 euro bideratuta. Tartian, bidia eta espaloiak txukuntzia, eta frontoian aittatzen dozuen

arazuak konpontzia. Ez hori bakarrik: erreserba-sistema bat egittia proposatu dogu, eta baita dutxak jartzia be. Lortuko ote dogun ezin detsuet agindu, baiña hitza emoten detsuet horren alde egitten jarraituko dogula. Bittartian eskerrik asko danon frontoia zaintziagaittik. Eutsi gure kiroleri eta kontuz ibilli!

Josu Mendikute (Eibarko EAJ-PNV)

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MAILLUKA.** - Kolpeak jotzeko eta iltzeak sartzeko erabiltzen den tresna. Gaztelarazko 'martillo'. Kaletarrak maillukiakin bezela, baseritarrak atxurragaz ataritzen dabe bizimodua. Mailuarekin kolpeka. "Ferran zan batek mailluka egitten eban Txirixo-kaleko suteixan".

## astean esanak

"ETB2n gertatzen dena esanguratsua da. Programa ikusienetan, audientzia gehien dutenetan, parte hartzaile gehienak euskaldunak dira eta gaztelaraz hizketan jartzen dituzte. Gero, saioaren bukaeran, irabazleak bertso bat kantatzen du eta grazia egiten die. Eta bertsolaritzaz ezer ez dakien jendeak uste du egiten ari dena eta BECen Igor Elortzak, esaterako, egiten duena gauza bera direla kalitatez, ahaleginez... hori gezur handia da! Gauza berdintsuak bailiran ari zaizkigu saltzen. Hori da kezagarria"

(ANDONI EGAÑA, BERTSOLARIA)

"Turismoa da seigarren kontinentea: pasatzen den tokitik agintzen du zelan bizi, jan edo kaka egin. Turismo masifikatua hirigintzak duen arrisku nagusia da. Hiri bat enpresa kolektibo bat izan daiteke, hiritarrek alkatearen bitartez demokratikoki agintzen badute; baina izan daiteke ere eraikin enpresa bat, marrazoek agindu eta alkatea sinatzaera mugatzen dena. Azken aldiaren eraikitzaileak nagusitu dira, euren gusto txarra, espekulazioa eta analfabetismoarekin. Eta egindako kalteak sendaezinak dira dagoeneko. Eraikin bat bakana izatea ondo dago, baina hainbeste zertarako? Inolako funtziorik ez dutenean, gainera"


(MANUEL VICENT, IDAZLEA)

"Demokrazia 'pribatizatzeagaitik' askok uste dute hemen oso ongi bizi garela. Jendeak ondoan duenarekin aldatzen du eta, hala, hemengoak beti izango da zoragarria. Prozesu independentista bat hemen egitea askoz zailagoa izango da Katalunian baino; batetik, azken hamarkadetan izan dugun historiagatik, baina, bestetik, mugimendu sozialen eta alderdien ardura da jendeak interpretazioak aldatzea eta agrarioak agrario moduan sentitzen hastea. Ez gara kontziente indarkeriarekin dugun tolerantziarekin. Zer gertatuko zatekeen urriaren 1eko erreferenduma Euskal Herrian izan balitz? Katalunian urriaren 1eko biolentzia agrariotzat dute"

(JULE GOIKOETXEA, POLITIKAKO IRAKASLEA)

## EGOk entsegu irekixa eskinduko dau martitzenian

Euskal Herriko Gazte Orkestrako kidiak Eibarren dagoz, **neguko topaketan**, datorren astian eskinduko dituen hiru kontzertuetarako preparatzen. 20 urteko ziklu ixteko, hiru lan garrantzitsu erakutsiko ditu orkestrak denboraldi honetan: Juan Crisostomo Arriagaren "Sinfonia Ren"; Karl Stamitzen "Biolarako eta orkestrarako kontzertua", orkestrako kide ohia eta gaur egunian Hanburgoko operaren orkestrako biola dan Maria Rallo Muguruzarekin batera; eta, amaitzeko, "Esklabo zoriontsuak" obertura ezaguna. Donostian (urtarrillak 3), Gasteizen (urtarrillak 4) eta Bilbon (urtarrillak 5) kontzertua emon aurretik, nahi dabenez guztiendako entsegu irekixa eskinduko dabe Eibarren, Hezkuntza Esparruko aretuan, datorren aste martitzenian, 17:00etan.



## Hainbat zozketatan otarra irabazi daben zenbakixak

**San Kristobal**go jai batzordiak zozketatu daben Gabonetako otarra 440 zenbakixak irabazi dau (ordezko zenbakixak 781 eta 505 dira). **Mogel Isasiko 4. maillako ikaslien** Gabonetako otarraren zozketan zenbaki sariduna 10.654 izan da (agertzen ez bada, ordezkua 3.272 da). **Urkiko loterixarekin batera** saldutako errifaren zozketan, barriz, sarixa 0053 (otarra) eta 0994 (Andia harategiko urdaiazpikua) zenbakixak irabazi dabe. Erreserbako zenbakixak 1.048 eta 1.765 dira. **Eskozia La Brava**k zozketatu daben otarra 1.790 zenbakixak jasoko dau (irabazliak abenduaren 31ra arteko epia daka). Erreserbako zenbakixa, barriz, 1.250 da (urtarrillaren 7xa baiño lehen aurkeztu biharko dabe). Eta **Peña Txinberaren** otarra 2.629 zenbakixari egokitu joko. Horrez gain, Gabonetako loterixak (42.407) sarixa daka (20 euro partizipazio bakoitxeko). Kobratzeko Sabadell bankura jua biharko da, urtarrillaren 2tik aurrera.



## 2018. urtiari ongi etorrixa Urkon

Klub Deportiko Mendi Taldekuak jendia animau nahi dabe urtarrillaren 1ian, 09:00etan Depor azpitan alkartu eta danak batera Urkora (791m) igotzera. Urteroko moduan, 10:30xetan talde argazkixa etarako dabe mendi puntan. Bestalde, urtiari agur esateko, **San Silbestre herri-lasterketaren XXVII. edizifua** hartuko dau Aixolak hillaren 31n. Umien-dako lasterketia 16:15etan hasiko da eta helduena, barriz, 16:30xetan.



**Funeraria-Ehorztetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b>   <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

[info@gerritek.net](mailto:info@gerritek.net)

[www.gerritek.net](http://www.gerritek.net)

## SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892



## Pegoran eskatu leike Coliseoaren Laguna txartela

Udalak Coliseoaren Laguna txartela eskinduko dau atzera be. Urtebeterako balixo daben txartela pertsonala eta izenduna da eta, hori erabillitza, Udalak antolatzen dittuan ikuskitzun edo kontzertuetan eta Coliseo antzokiko zine emanaldixetarako sarretan %30eko beherapena lortu leike. Urtarrillaren 2tik aurrera egongo da eskatzeko aukeria, Pegoran (astelehenetik eguaztenera 08:30xetatik 14:30xetara eta 15:30xetatik 19:00etara; eta eguen eta barixakuetan 08:30xetatik 14:30xetara). Aurten, barrikuntza bezala, txartela ordaintzeko modua aldatu dabe eta ez da banku bidezko transferentziarik onartuko. Aukera bi dagoz ordaintzeko: Pegoran, banku-txartela erabillitza eta, bestela, Pegorak igorritako dokumentuarekin banku-erakunde laguntzaille batera juan eta han ordaintzia.

## Erregien kabalgotia urtarrillaren 5ian

Aurten be Erregien kabalgotia egin go da, urtarrillak 5ian. Aurretik, 17:00etan, ikuskizuna eskinduko dabe kiroldegixan Ipurua Dantza taldiak eta Gimnasia Erritmika taldiak, Kabalgatia 19:00etan abiatuko da Untzagatik, Eibarko Musika Bandako musikuak lagunduta.



Kalejira ezin jendetsuagua izan zan domekakua. **Maialen Belaustegi**

## Jende morduak lagundu zetsan Olentzerori

Eguzkixak animauta edo, Olentzerorekin batera kantuan egitteko kalejirak jendetza batu eban. Txiki eta haundi, danak primeran pasau eben soiñujole eta abesbatzak lagunduta Urkizutik Untzagara bittarteko bidian abesten. (ARGAZKI-BILDUMA etakitto-eus webguneko mediatekan)

**ASTELEÑA**  
150 Ardo - 50 Barran  
Maridajeak / Kazuelitak  
Ehizako haragia  
Plater konbinatuak  
Otaratekoak eramateko

**GASTROTEKA**

Estaziño, 7  
943 20 70 32

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

**CAPI**  
www.capiestetica.es

**BERRIA!!!**

Coolifting®  
Lifting tratamendua

**IA BETIRAKO  
MANIKURA  
ETA PEDIKURA**

**BETILE  
LUZAPENAK  
/ LIFTING**




## “Eibarko koloreak” Museuan ikusgai ipiñiko dittue

Urtarrillaren 11n, 19:30xetan zabalduko dabe "Eibarko koloreak", kulturarteko erakusketia Museuan eta, inauguraziñua girotzeko, Maroko, Nepal eta Senegalgo musika eta gastronomixia eskinduko dittue. Udaleko Inmigraziño Saillak eta Kulturartekotasun arloko alkartiak Eibarren antolatutako jardueren argazki erakusketa urtarrillaren 28ra arte egongo da zabalik, Museuaren ohiko ordutegixaren barruan. Bestalde, Museuak bisita gidatua eskinduko dau urtarrillak 13an (17:00etan euskeraz eta 18:30xetan gazteleraz). Izena emoteko, 943708446 telefonora deittu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi. Eta Museuaren XI. urteurrena dala eta, ate irekixen jardunaldixak antolatu dittue urtarrillaren 18tik 21era.

## Pello Mariñelarenaren marrazki eta margo erakusketa Topalekuan

Eibarko Sarek antolatuta, Pello Mariñelarenaren marrazki eta marguekin osatutako "Guk ibilitakoak gureak dira" erakusketia hartuko dau Topalekuak, urtarrillaren 8tik 12ra. Inauguraziñua urtarrillaren 8xan, 19:30xetan izango da eta, bestela, ikustera juateko ordutegixa 18:30xetatik 21:00etara da. Bestalde, urtarrillak 13an Bilbon euskal presuen eskubidien alde egingo dan manifestaziñorako autobusak antolaten dihardute (Ego-gaiñetik urtengo dira, 16:00etan) eta, izena emoteko, Beleko, Buenos Aires eta Kultu tabernetara jua biharko da.



Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta domekan egin zan Gabontrailleko ibilbidia egitteko 40 bat lagun alkartu ziran. Antolatzaillien berbetan, "eguraldi zoragarriak lagun-duta, giro paregabian bete genduan ibilbidia: Arrate, Aizketa eta Kalamua gaiñak egin genduazen eta, urtia agurtzeko, 'Parlamentuan' txanpaina eta turroia hartu genduazen. Jarraixan, ohiko bidetik jaitsi giñan Ixuara, handik Iturburu eta Milaflores pasau eta Deporren amaitzeko". Hurrengo trail urteeria, Negutrail izenekua, otsaillian izango da (oindiok ez dabe egunik zihetu).



## 40 lagunek hartu eben parte Gabontrailian

# TXOKO

*Giro alaiia  
Gabon Zaharrean!*

**UNTZAGA PLAZA, 10  
20600 EIBAR**



● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
☎ 943 12 02 00 ☎ FAX: 943 12 02 04

- |                          |                               |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1) Kardiologia           | 11) Barne Medikuntza          |
| 2) Zirugia               | 12) Radiologia                |
| 3) Dermatologia          | 13) Urologia                  |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 14) Traumatologia             |
| 5) Análisi Klinikoak     | 15) Koloproktologia           |
| 6) Ortodontzia           | 16) Erizaintza                |
| 7) Otorrinolaringologia  | 17) Foto-depilazio            |
| 8) Pediatria             | Unitatea                      |
| 9) Psikiatria            | 18) Ginekologia <b>BERRIA</b> |
| 10) Neurologia           | 19) Psikologia <b>BERRIA</b>  |



**MARKEL ALBERDI,**  
**igerilaria:** "Hiri Olinpikora joan eta jantokian Bolt eta antzeko kirolariak ikustea surrealista izan zen".



**MIKEL GAZTELURRUTIA,**  
**musikaria:** "Jazz musika %95ean inprobisazioa da. Baina, askok pentsatzen dutenaren kontra, ez da hain askea".



**SILVIA TUBIA,**  
**diseinatzaile grafikoa:** "Sortzaileentzat ezinbestekoa da kolaborazio-sareak sortzea".

# Urteari errepasoa

Urkora igota hasi zuten urtea askok. Urteroko moduan **Hiru Erregiak** karroza gaiñian herrixa ziherratu eben, kiroldegixan euren omenez egindako dantza erakustaldixa ikusten egon eta gero. Auzokoak alkatetxak **Gureak** tailarrekuendako bazkarixa preparau eben eta, urteroko kontuekin jarraituta, **San Sebastian eguna** goguan, Danborradako kontzertua egin zan Coliseo antzokixan. **Lagun Taldekuak** primeran ibilli ziran urteroko musika eta dantza ikuskizuna Unibersidade Laboralian eskintzen. Hillaren 18xan **Armagintzaren Museua** Portalean inaurau ebela hamar urte bete ziran eta, handik egun gitxira, "20 urte" izeneko erakusketia inaurau eben eraikin bereko 2. solairuan, **Portalea kultur etxiaren 20. urteurrenaren** harira. Coliseoko ikuskizunetara juaten dan publikua fidelizatzeke eta jende gehixago erakartzeko, **Coliseoaren Laguna** deskontu-txartela eskintzen hasi ziran. San Sebastian egunian argitaratu genduan aldizkarixarekin **...eta kitto!-ren 1.000 alera** aillegau giñan. Eibar-Sahara Elkartetxak, betiko martxan, Sahararen aldeko **Euskal Karabaniandako elikagaixak** batu zittuen. **Diabetesari aurrea** hartzeko kanpañia hasi zan hainbat botiketan.



**Urkora igoerarekin hasiko dugu 2018a ere. Goiz horrek hainbat mendizale eta mendizale ez direnak bilduko ditu gainan, urte berria agurtzeko.**



**Sahararako kanpamenduetan bizi direnentzako elikagai bilketan alkateak ere hartu zuen parte.**



**Gureak-ekoen bazkariak ez dio kalerik egiten urteroko hitzorduari, ondorengo sari banaketarekin.**



Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Bidebarrieta 20

Tlfno: **943 20 16 69**

facebook.com/oberenaharategia




**ASIER SARASUA,**  
**biologoa eta filologoa:**

"Txori batek 15 izen ezberdin izan ditzake euskeraz lasai".


**INES BENGOA,**  
**ipuin kontalaria:**

"Orokorrean ez dugu sexuaren inguruan modu iriekian hitz egiten".


**JUANJO ALVAREZ,**  
**legelaria:**

"Katalunian edozer gertatuta ere, horrek ez luke eraginik izan behar gure Kontzertu Ekonomikoan".

San Blas egunian opillak bedeinkatzera eruan zittuen eibartar askok. Arrate Kultur Elkartek eta ...eta kitto!-k alkarlanian antolatuta, opillak egiten ikasi nahi ebenendako ikastaro arrakastatsuek eskindu zituen eta Kulturalak San Blas lehiaketia be antolatu eban. Eta **Santa Ageda** goguan, hainbat talde kalera urten ziran santaeskian eta koplak kantatzera. Eta ederto ospatu eben **San Balentin** Untzagako jubilau etxian. **Eibarko Antzerki Jardunaldixak** 40 ediziñua bete eben. **UEUK**, barriz, **udaberrirako ikastaro eskintza** emon eban ezagutzera. Lanbide Heziketako ikasliak 207 enpresa proiektu aurkeztu zittuen Untzagan, **Ikasenpresa azokaren** seigarren ediziñuan. Coliseo antzokian, bestiak beste, **Bilboko Korua eta Ganbera-orkestra zuzenian** entzuteko aukeria euki genduan eta Alba Molinak emanaldixa eskindu eban. Perutik etorritako Wilmer eta Julio Bermejo gurian izan ziran, urtietan eurekin alkarlanian diharduan **Egoiazia** Gobernuz Kanpoko Erakundekueri bisita egiten. CIP-CA-ren Nekazarixen Sustapen eta Ikerkuntza Zentroko bi kidiak hainbat ekitalditan hartu eben parte, biagia aprobetxautu. **Udaleko** bihargiñak erabiltzeko **bizikleta elektrikua** erosi eban udalak eta Berdintasunaren Pasealekuan, San Andres zaharren egoitza parian **umiendako parkia** zabaldu eben. **Frankismuaren krimenen kontra** akusaziño modura jarduteko prozedura hasi eban udalak. Nazioarteko Astronomia Elkartek, Iruñeko Planetarioak eta Espainiako Astronomia Elkartek hala eskatuta, **Javier Gorosabel Urkia** astrofisiko eibartarren izena jarri zetsen gure eguzki-sistemako asteroide bateri. Euskal Herriko I. **Misterio Jardunaldixak** gure herrixan egin ziran. **Aratostiak** ospatzen hasteko, **koko-marruak** hamargarrenez etorri jakuzen bisitan eta, urteroko moduan, Arrate Kultur Elkartekua Eguen Zuri Argazki Lehiaketia antolatu eben. Eta albiste tristia ekarri zeskun otsaillak, azken egunetan, Elgoibarren bizi zan **Joseba Zinkunegi** eibartarra eta Iker Jausoro Valdezcarayn amilduta hil ziran eta.



**Santa Agedari abesteko kalejira bat baino gehiago izan zen herrian, tartean ...eta kitto!-k antolatutakoa, Eibarko Kantuzaleak eta Musika Eskolakoekin.**



**San Blas egunean, ohiturari jarraituz, opillak bedeinkatzera eraman zituzten eibartar askok.**



**Koko-marruak Aratosteetarako giroa epeltzen hasi ziren, goizez baserriz-baserri eta gero kaleetan.**

**IÑAKI REZOLA**  
**HARATEGIA**

*Ute Berri On!!*

Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

**BOLINTXO**  
**OKINTEGIA**  
**GOZOTEGIA**

Eguneroko  
 ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)





**ARRATE BERASALUZE,**  
boluntarioa Kios  
uhartean: "Boluntarioak  
berebizikoak dira, baina ez  
dute errefuxiatuen arazoaren  
konponbidea, Europako  
gobernuek baizik".



**MIREN NARBAIZA,**  
abeslaria: "Eskertzekoak  
dira euskararen alde  
botatako izerdi tantak".



**ZELAI NIKOLAS,**  
Gure Esku Dago: "Gure  
Esku Dago ekimena abiatu  
zenetik, normaltasuna  
konkistatzen ari gara".



*Aratosteetan kokojantzi eta antolatutako egitarauaz gozatzeko aukera izan zen asteburu osoan. Izan ziren talde-diseinua landu zutenak ere.*



*Herriko Harrera Familietako ordezkarri batzuk esperientzia aberatsa bizi dutela esan ziguten.*



*Antzerki Jardunaldiek 40. edizioa bete dute aurten eta 25 lan ekarri ziguten, sasoiko onenak tartean.*

Emakumiaren Nazioarteko Eguna izan zan ardatz nagusixa hillebete osuan. Aurtengo kartelak zein egitarauak "Emakumea eta artea" gaixari segidu detse eta kartel lehiaketia Natalie Garrido Acebesek irabazi eban, "Eyes" izeneko lanarekin. Egitarauaren barruan antolatutako **Eibarko Genero Berdintasunaren Aldeko Lehen Martxa** euri-pian egin zan. Zinbili-zanbulu barrixak ipiñi zittuen Ego-Gain eta Urkizun eta herriko toki batzuetan hondakiñak gaika biltzeko **lehen zakarrontzixak** ipintzen hasi ziran. **Menu orekatu eta osasuntsuak** etxeraiño eruateko zerbitzu barrixa eskintzen hasi ziran. Untzagako "**Casa del Pueblo**" alderdi sozialistaren egoitzak 100 urte bete dittuala eta, hori gogoratzeko egitarauaren barruan, "**Juan de los Toyos. El soñador que trabajó por un sueño**" dokumentala estrenau eben Coliseo antzokixan. Eibartarrak **bidezko merkataritzaren** inguruan sensibilizatzeko hainbat ekintza antolatu zittuen La Salle ikastetxe kuak. **Gaixotasun arraruak** eta diagnostikatu barikuak dittuen umieri laguntzeko, tatudore talde batek jardunaldi berezixa antolatu eban eta jendiak primeran erantzun eban. Eta Jende Xumea gazte kooperantien taldiak, barriz, bere alkartasun proiekturako dirua batzeko **Proega Eguna** antolatu eban. Urkizun VII. **Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka** egin zan eta Armerixa Eskolako patixuak, barriz, **#ABIAN Debabarreneko III. Enplegu eta Lanbide Heziketa Azokia** hartu eban. Bestalde, **Armerixako Ikasle Ohien** alkartiak zuzendaritza barriz-tatu eban. Albiste txarrik be izan genduan: Azkarate gaiñan izandako trafikio istripuan hiru lagun hil ziran, tartian El-goibarren bizi zan **Iker Amutxastegi** 41 urteko eibartarra. Eta Ardantza kalia, alokairu sozialeko etxe batian bizi zan **famelixia etxetik etara** ebela eta, iskanbilla haundixa sortu zan. Martxuaren azken egunian abiatu zan **Errenta aitorpenaren** inguruko kanpaina.

# Larragest




F. Calbeton, 22-24


**INMOBILIARIA**  
690 610 715

**ASEGURUAK**  
943 200 795

Zuhaitz Eguna ospatzeko Usartzan lau motatako 40 zuhaitz landatu zittuen. Grezian dagaizen Siriako errefuxiatuerei laguntzeko ekitaldixa antolatu eben **Zaporeak** proiektuko ki-diak. **20. Korrika** apirilaren 7xan aillegau zan gurera, gabaz. Pixkat aurretik zabaldu eben Portalean "Eibarko Ignazio Zuloagaren egungo islak" erakusketa **institutuko Arte Batxilergoak** eta gaztien lanak **Eibarko Artisten Elkarteko** bazkidien erakusketa kolektiburekin batera ikusteko aukeria euki genduan. Urteroko moduan, **Sostoa** abesbatzak kontzertu sakrua emon eban Karmelitan. **Margari Olañetak** lekukua erredakziño-kontseillua osatzen daben laukotiaren esku laga eta gero, **Eibar Rebistak** sasoi barriko 136. zenbakixa kaleratu eban. Eta "Antzinako Lanbideak" bildumako 14. bolumena kaleratziarekin batera, Foru Aldundixak omenaldixa egin zetsan **Carmelo Urdangarin**, Eusko Ikaskuntzako bazkidiari. Egungo gitxiko aldiarekin andra esanguratsu bi galdu genduan: Eibarko Balleta sortu eban **Juanita Unzueta** eta Arrateko serora izan zan **Martxu Olarra**. Muzategi kalian **Indianokua gaztelekuak** atiak zabaldu zittuala sei urte bete ziran. Eta Andretxea barruan egoitza estre-nau eban **Gehitu**, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen alkartiak. **Liburuaren Nazifioarteko Eguna** ospatu eban Liburutegixak eta liburu aurkezpenik be izan genduan: "Te voy a hacer una autocrítica. Diccionario para entender a los humanos" liburu presentau eban egilliak, Jose Antonio Blanco "Perroantoniok". **Pertsona Nagusixen Hamabostaldixa** martxa betian ospatu eben jubilauek. Eta apirilla agurtu aurretik hasi ziran **Santa Kurutzeko jaixak**; ordurako hasitta eguazen sanjuanetako danborradetarako entseguak. **II. Errepublikia** aldarrikatu zala 86 urte bete ziran eta, **Eibarko bonbardaketaren** 80. urteurrenaren harira egitarau berezixa antolatu eben. Gure herriko historixakin interesauta, Alemaniatic etorrittako 21 ikasle Udal Artxibuan bisitan egon ziran. Aste Santuko oporren bezperan, apirilaren 12xan onartu eban Udalbatzak urtiotan baiezko boto gitxien jaso daben **udal aurrekontua**, 33.078.571 euroko prespuetua.



**GERMAN EREÑA, operazalea eta ikerlaria:** "Isidoro Fagoaga tenore ospetsuak bere ahotsa isiltzea erabaki zuen Gernika bonbardatu zutenean".



**JUAN PABLO FUSI, historialaria:** "Gerta zitekeena izanda ere, Gerra Zibila ez zen halabeharrez gertatu beharreko zerbait".




**ROSA MARTINEZ ALCOCER, aktorea:** "Eibar bezalako herri batean 40 urtez Antzerki Jardunaldiek iraun izanak esan nahi du lan handia, esfortzu izugarria eta maitasun ikaragarria egon dela atzean".



**Korrikaren 20. edizioak apirilaren 7an bisitatu gintuen. Eibarko kilometroak egiteko, 36 parte-hartzaileen artean banatu zen ibilbide hori.**



**Institutuko ikasleek "Egungo islak" erakusketa berezia egin zuten Ignacio Zuloagaren omenez.**



**Eibar bonbardatu zutela 80 urte betetzen zirela-eta, egitarau berezia antolatu zuten.**



**Afilialu**  
www.ccoo-euskadi.net

**CCOO**  
euskadiko langile komisiok

**CCOO-ek Euskadin elkarriketa sozialaren eta negoziazio kolektiboaren alde egiten du**

Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es



**JESSICA OTS, Gehitu-ko kidea:**

"Berdinketa behar da arlo legalean, baina gizarte arloan ere lan egin beharra dago. Gizartea hezitu behar da horren inguruan".

**AMAIA GOROSTIZA, Eibar Keren presidentea:**

"Eibarren historiako mugarririk garrantzitsu eta zoriontsuena ari gara bizitzen, eta hori aprobetxatzen saiatu behar dugu".

**JARA LARREATEGI, Gautena:**

"Prozesua ondo eramanez gero, ahalik eta bizitza normalizatuena izango dute etorkizunean autismoa duten umeek".



**Euskal Jaiaren 52. edizioak maiatzaren azken asteburua hartu zuen, jendeak baserritar jantzita giro paregabea dantzaz egiteko.**



**Gure Esku Dago-k deitutako galdeketa ia 3.000 eibartarren parte hartzea izan zuen.**



**Debabarreko Esperientzia Eskolaren XIII. edizioak ikasturtea amaitu zuen Armeria Eskolan.**

**Maiatzaren Lehelenguaren** harira mobilizaziñuak antolatu zittuen sindikatuak. LAB-ek, Eibarren ez eze, oinguan hiriburuetan be egin zittuan mobilizaziñuak, ELA, UGT eta CCOO-k bezala. **Gure Esku Dago deitututa herri-galdeketa** egin zan maiatzaren 7xan: Eibarren, 2.839 botoemaitetik "Euskal errepublika bateko herritarra izan nahi dozu?" galderiari 2.791-k baietz erantzun zetsen. Maiatza hasieran eraitsi eben Ibar-Gain kaleko 10. zenbakiko eraikiña, 1705ian jasotako **Ibargain basarrixa**. Sekula baiño jende gehixago batu zan Alcobendasen bikotekidiak hildako **Rakel Lopez Airas** eta bere semiaren hilketak gaitzesteko mobilizaziñuan. Bestalde, **udaletxeko patixuak bi erakusketa** berezi hartu zittuan: "Emeek emana" izenekua eta Gervasio Sanchezen argazkixekin osatutako "Sarajevo, gerra eta bakea". Debabarreneko **Eskolarteko Antzerki Erakusketiak** mailla goreneko ikuskizunak ekarri zittuan gurera. **Asier Serranok** Espaiñiako 2016ko euskarazko poesia kritika sarixa irabazi eban. **Debabarreko Orkestra Sinfonikuak** kontzertua emon eban eta bertso-bazkarixa egin zan Legarre Gain alkartian, jai batzordiarene eskutik. Udebarrixarekin batera aillergau jakuzen urteroko jaixak: **San Isidro, Galiziako Etxekuak**. Klub Deportibokuen eskutik, barriz, **Argazkilaritza Maiatzian** eta **52. Euskal Jaixa** euki genduazen. Eta euskal dantzak ikasteko prest **Salt Lake City**-tik (Utah, AEB) 11 dantza ikaslek osatutako taldia etorri zan. Maiatzaren 18xa **Museuen Eguna** dala eta, ekitaldi morduua antolatu zittuen. Astelena frontoian III. Eibarko Zumba Maratoia egin zan AFESD alkartekueri laguntzeko eta **Perun kaltetutakuen** alde kontzertu berezixa egin zan Coliseoan. **Debabarreko Esperientzia Eskolaren XIII.** ediziñuak ikasturtea agurtu eban. Eta **25 urte** bete zittuan **...eta kitto! Euskara Elkarteak**.

Baimendutako Harategia  
Gure Kalitatea  
**Giokela**

**MUGIKA** Urkizu, 18  
943120194

**HARATEGIA**

*URTE BERRI ON!*



**GERVASIO SÁNCHEZ,**  
**kazetaria eta argazkilaria:**  
"Gatazka armatuetan  
koldakeria handia dago  
gertatzen ari denari aurre  
egiteko orduan".



**ESTITXU GARAI,**  
**publizitate-irakaslea:**  
"Eibarren euskarari bultzada  
ematea da Guinness  
errekorrarekin aurkeztuko  
den egitasmoaren muina".



**ALEX SARDUI,**  
**abeslaria:** "Euskaldunok  
ondo bizitzen dakigu eta,  
zortearekin, ondo pasatzen  
dugu eta harreman majoak  
ditugu elkarren artean".

Kontsumo Arduratsuaren II. Azokia egin zan. **Goruntz abesbatzak** abes-tutako mezia eskindu eban San Andres elizan, 25. urteurrenaren harira. **Itzamna poesia taillarrekuak** be, urtero lez, Ibarkurutzen poesia eta musika gabarekin esan zetsen agur ikas-turtiari eta **Atzegikuak** Debabarrena-ko famelixekin topaketia egin eben. **Mursegok** "100% OION" lana aurkeztu eban Arabako herrixan eta, musikarekin jarraituta, kontzertuz bete eben asteburu oso bat **Ez Dok tabernakuak**, 4. urteurrena ospatze-ko. Eta hillaren 9xan ospatu eban Artxibuen Nazioarteko Eguna **Udal Artxibuak**. Ospakizunekin jarraituz, **Edozer soziedadiak** urrezko ezteiak ospatu zittuan eta 30 urte bete zittuan **Urkizuko Eibar Osasundegiak**. Illara luziak egin ziran Eibarko Hezkuntza Esparruan, Haurreskolak Partzuergoak **hezitzaillien zerrendak** aldi baterako zabaltzeko deialdixaren barri jaso eben ehunka hezitzaillie gure herrixan dagan Partzuergoko egoitzaren inguruan alkartzian. Armerixa Eskolan idazkari kargua bete eban **Javier Gesalaga San Martin**, barriz, Gasteizen hil zan, 71 urterekin. Urtero lez, ekaiñeko lehelengo **jaixak Urkikuak** izan ziran, baiña atzetik beste batzuk etorri ziran: Eibarren AKEBAL plataformaren ekimenez ekaiñaren 22xan **Guinness errekorra** lortzeko egin zan ekitaldixak eraginda ohikuak baiño luziaguak izan ziran **San Juan jaixak**, hórretxen inguruan Rugby taldekuak antolatzen daben **Garagardo Jaixa**; Karmen kaleko parkian Beheko Tokiren eskutik ospatzen diran **sanpedruak**, Kezka dantza taldeko ikasliak urtero ikas-turtia agurtzeko egitten daben **Dantzari Eguna**... Udako beruari aurre egitten laguntzeko hillaren 10ian zabaldu eben kanpoko igerilekua.




**Ekainaren 22a egun berezia izan zen, Eibarrek Guinness marka ofiziala egitea lortu zuelako Untzaga plazan 2.500 lagunetik gora bilduta.**



**Urkiko jaiek 19. edizioa bete dute aurten, eta jarraian etorriko zirenen aitzindari ere izan ziren.**



**Haurreskoletako hezitzaillien zerrendak zabaltzeak ilara luzeak eragin zituen Hezkuntza Esparruan.**



**JOSE VICENTE PEROSANZ**  
**M<sup>a</sup> LUISA SOROA**  
**MARTA VALERA**  
**IRATXE URIBEZUBIA**

TEL. 943 204 194  
FAXA. 943 820 006

Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com



publiresa@publiresa.com


Armagin, 3-5 beheak

 merchandising

 serigrafia

 lanerako erropa

943 701 497 / 615 799 419



**AITZIBER CORTAZAR,**  
**Debegesa:** "Gure mezua da dena eskura, Euskal Herriko muinean gaudelako, leku guztietatik gertu, eta horretaz gain badaukagulako eskaintza propioa".

**ASIER GARIN,**  
**Lambretta Kluba:**  
 "Lambretteroak gara Lambrettak Eibarren egin zirelako. Klasikoan maitaleak garelako".

**IKER GARCIA-PASCUAL,**  
**kulturista:** "Ohiturak eskaini behar dizkiozu gorputzari, lehiaketen aurretik zertxobait aldatuko direnak".


UEUren 45. Udako ikastaruak arrakasta haundixa euki eben, 600 bat lagunek emon eben izena eta 100 bat irakaslek jardun eban. **IK4-Tekniker** zentro teknologikua enpresa-inkubagailu teknologiko berriz inauguratu eban eta Teknikerren banatu zittuen **27. Toribio Etxebarria Sarixak. Enerxika barriztagarrietan** oiñarritutako teknologixia bertatik bertara erakutsi eben Untzagan Eibarko Ingenieritza Tekniko Industrialeko Unibertsitate Eskolakuak. **Minbiziaren Aurkako Elkar-teak** larruzaleko minbiziaren aurkako kanpaina ipiñi eban martxan. Urteroko martxan **Ikusentzunezkuen Astia** antolatu eban Arrate Kultur Elkar-teak. **Amañako Jaixak** 39. ediziñua bete eben eta aurten 25 urte bete dituan Nagusixen danborradia omendu eben. **San Kristobalگو jaixak** eta Eibarko **Lambretta Klubak** antolatutako XIV. Konzentraziñuak bat egin eben kalendarixuan. **Sanfermiñetara** ...eta kitto! eskuan juan zan eibartar talde bat eta San Fermin egunian agur kontzertua eskindu eban **Napoka Iriak**. Abuztuaren 15ian **Andra Mari jaixak** ospatu zittuen Azittaiñen. Lau urteko etendixia eta gero, udan atzera be **zinia kalia**n eskindu eben eta emanaldiz betetako uda hasi zan Ustekabe txarangakuen-dako. Uda osuan egon ziran ikusgai eibartarren lanak Debako elizako klaus-truan. Abuztuan hasi zittuen **Portalea barrizteko** biharrak.




**Amañako jaietan mende laurdena betetzen zuen Helduen Danborrada omendu zuten, iaz Haurrenarekin egin zuten bezala.**



**Abuztuan herrian geratzen direnek Andra Mari jaixak izaten dituzte zain Azitainen.**



**Kanpoko igerilekuak protagonista bihurtu ziren beste behin herrian geratu zen jendearentzat.**



**Zorionak eta Urte Berri On gure bezero guztiei**

**Tfnoa.** 943 20 22 39  
**Mobila.** 617 16 33 82  
 egolan.eibar@gmail.com

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

**EGOLAN**

Julian Etxebarria 7, 7-C





**XABIER LEJARZEGI, ENEEKeko kontseiluko zuzendaria:** "Irakaskuntzako hezkuntza-zerbitzu osagarria izatea du helburu Ekolapikok, elikadura eta osasunaren sentsibilizazio ekintzen bitartez".



**TERESA CASTRO, komikilaria:** "Irakurri nahi nituen istorioak kontatu nahi nituelako sortu nuen 'L.S.B., Ana'".



**MIREN BARANGUAN, Txalan-Txalaneko koordinatzailea:** "Beste inguru berri bat ezagutzeko aukera ematen dizu Txalan Txalan-ek".

Arrateko jaixekin batera hasi giñan ikasturte barrirako preparatzen. Arrate bezperako bertso-afarixa 25. ediziñora aillegau zan. Kantabriako Etxekuak be **Bien Aparecida amabirjiñaren jaixak** ospatu zittuen eta, urteroko martxan, euren jaixa egin eben Arrate izenekuak. **Armagille Elkartiaren** 50. urteurren ekitaldixa egin zan Museuan eta iraillaren 23an **Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketia** egin zan Astelena frontoian. **Mugikortasunaren Europako Astearen** barruan erakusketa berezixa hartu eban Museuak, Eibarren egindako bizikleta zaharrak erakusteko. **"Forjarien Kanta"** musikala atzera be taularatu eben Eibarko Koru Gaztea-ko abeslarixak, Eibarko Musika Bandako hainbat kidek eta Musikeneko ikasliak lagunduta, gaiñera. Arrajolape alkartiak antolatuta **jaixak** ospatu zittuen **Legarren**. **San Wenzeslao jaixak** jarraixan izan ziran. **Euskal Herriko Txistulari Elkarteak** 90 urte bete dittuala ospatzeko atzera be Arraten alkartu ziran. Ikasturte hasieran eratu zan Eibarren Akebai batzarra eta Hankamotxak Bertso Eskolak bertso saio musikatuarekin ekin zetsan kurtsu barrixari. **Portaleko areto nagusixa kontzertuetarako** erabiltzen hasiko zala emon eben aditzera. Iraillaren 23an jakin genduan **Asier Serranok** poesia arloko Irun Hiria Sarixa irabazi ebala, "Denen mina da nirea" poesia bildumarekin, eta handik sei egunera "Linbotarrak" lanarengaittik euskarazko Euskadi Sarixa jasoko ebala iragarri eben. **Kataluñiako erreferendumari babesa** azaltzeko ekitaldixak jendetza batu eben. **"Harixa Emoten"** idazle eta irakorlien arteko tertulien ikasturtia be hasi zan. Eta ustekabian juan jakuzen **Maite Narbaiza** Atzegiko baillarako arduraduna izandakua eta **Javier Hernando** irakasle eta antzezlia.



**Eguraldiak ondo errespetatu zuten Arrateko Amaren eguna eta ekitaldi guztiak arazorik gabe egin ziren, prozesioa barne.**



**Iñaki Arriola euskal sozialisten presidente izendatu zuten PSE-EE alderdiaren VIII. Kongresuan.**



**Asier Serranok sari bat bestearen atzetik irabazi ditu azken urtean, gehienbat poesia arloan.**



## **M<sup>a</sup> IDOIA IRCIO EZQUER**

*2017ko abenduaren 13an hil zen*

**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.**





**IÑAKI ZULOAGA, idazlea:** "Finantzen liberalismo basatiak eta lan merkatuen deserregulazio basatiak ez gaitu eramango pertsonak askatasun gehiago izatera".

**POLI ARREGI, bihotza Eibarren daukan argentinarra:** "Nire sustraiak hemen daude eta familia bisitatzen asko disfrutatzen dut".

**IMANOL URREISTI, Armeria Eskolako zuzendaria:** "Armeria Eskola gizarteari zabalik dagoen agente dinamiko eta partehartzaile modura ikustea gustatuko litzaiguke".



**Gipuzkoa osotik etorritako jubilatuek elkartu ziren Eibarren, probintziako jubilatuek eta pentsiodunen elkarteek antolatutako Nagusien Ibilaldirako.**



**Mendaroko Ospitala zabaldu zela 25 urte bete direla-eta, hainbat ekitaldi egin ziren hori ospatzeko.**



**Bailarako II. Gazta Asteak azoka, erakustaldiak eta tailerrak antolatu zituen.**

Debabarreneko VI. Aste Ekologikua eta Ekolapiko Eguna euki genduzen bata bestiarekin atzetik, baita **Debabarreneko II. Gazta Astia** be. ...eta kitto! Euskara Elkartiaren eskutik **24. Sagar-do Eguna** ospatu zan. **San Miguel jaiak** asteburu osua bete eben Agiñagan. **Donostiako Zinemaldixan** estreinatu eben bost eibartarren parte-hartzia dakan "Volar" lana. #AtzegiXperience sensibilizaziño kanpainia aurkeztu eben eta Egoaizia GKEE-k eta Aldatzen boluntariuaren taldeak, barriz, "Jana ez da txantxa" IV. **Bazkari solidariuxia** antolatu eben. PSE-EEren VIII. Kongresuan **Iñaki Arriola** gure herriko alkate izandakua aukeratu eben Jesus Egigurenek 2014an lagatako tokixa betetzeko. Eta **Miguel de los Toyos** alkatiak **Belgikara** bidaia egin eban, "gerrako umiak" gogoratzeko Marchin herrixan egindako ekitaldirako gonbidapena jaso eta gero. EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak Eibarren dakan Energia Berri-zatagarrien Ingenieritzako graduiko ikasle talde batek, EDP-Berri-zatagarri antolatutako "University Challenge" lehiaketako lehen sarixa irabazi eban. **Indalezio Ojanguren XXX. Argazki Lehiaketako** irabazleak aukeratu zittuen. **XIX. Jardunaldi Mikologikua**, **Eibarko Liburu Azokia** eta **Persona Nagusixen Eguna** be ekarri zittuan urriak, bestiak beste. **Gipuzkoako Jubilauen Martxa** hartu genduan. **Odol-emotailiak** urteko batzarrian hainbat lagun omendu zittuen. **Bularreko Minbizixaren Aurkako Eguna** gogoratu zan Untzagan eta **Mendaroko Ospitala** martxan ipiñi zala mende larena ospatzeko kontzertua egin zan Coliseo antzokixan. Eta Pasaian 2013. urtian trafiko afera modura hasi zan liskararren harira Amaia Agirregabiria alkate ohiarendako eta letradu modura ziharduan **Iker Rokandio** eibartarrarendako kartzela zigorra ezartzeko epaiaren aurrin, alkartasuna adierazteko ekitaldixa egin zan Txaltxa Zelaixan.



# MARIA URZURIAGA UGARTEBURU

**1. URTEURRENA (2016-XII-30)**

**"ZURE irribarrea eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"**

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (ABENDUAK 31) EGUERDIKO 12:30etan, ARRATEKO SANTUTEGIAN.**





**MIREYA ETXALUZE, astrofizikaria:** "Grabitazio-uhinek zulo beltzak ententitzeko, izarren bizitza-zikloa ezagutzeko eta unibertsoaren jatorria ulertzeko balio izatea espero da".



**ESTHER FDEZ. DE MARURI, margolaria:** "Margolaritzak xarma handia dauka, koadroak eskaintzen dizuna".



**IKER ROKANDIO, abokatua:** "Ezin leike ulertu gure kontra holako ankerkeriarekin zergaitik jokatu daben".

Hizkelan mintegixa hartu eban Armerixa Eskolak lehelengoz. As Burgas Galiziako Etxekuak **Magosto jaixa** antolatu eban eta AEK euskaltegiak bertolarixak lagunduta ospatu eban oinguan **Gaztaiñerre**. Eibarko Sarek Eibarko II. **Berakatz Zopa Txapelketia** antolatu eban eta herriko famelixa batzuk **Bizilagunak bazkarixa** egittera animau ziran. **Asier Errasti Film Laburren Lehiaketaren** 18. ediziñuan Eibarko bi ordezkari izan ziran: Mikel Rodríguez Alberdi eta Koldo Edorta Carranza. Unax Blancoren "Zuk" dokumentalaren estreinaldixa egin zan. Azken urtiotako martxan, aurtan be kokotxikixak osatutako taldia ibilli zan basarrikerik basarri **Animen Gaba** ospatzen, Domu Santu egunaren bezperan. **Bakillauaren Astiak** San Andres jaixekin bat egin eban. Armerixa Eskolakuak San Andres eguna eta Euskararen Eguna batu zittuen "**Sanandreu**" izeneko jaixan. Eibarko tabernarixen arteko **pintxo lehiaketak** 16. ediziñua bete eban. **Santa Zeziliaren** omenezko saiua eskindu zittuen muskarixak. Euskadiko Gazte Sozialistak eta Eibarko PSE-EE alderdixak **Tomas Meabe** omendu eban, bera gogoratzen daben plakia ipiñitta. **Titirijai** jaialdiko lan batzuk Eibarren eskindu zittuen eta **Pirritx, Porrotx eta Marimototsek** "Borobilean" aurkeztu eban. **Txakurrendako eremua** zabaldu eban Itzioko parkian eta errefusa biltzeko **edukiontzi grisa** aillegau jakun.



**Koko-txikiek osatutako taldea baserririk baserri ibili zen Animen Gaba ospatzen Domu Santu egunaren bezperan.**



**Pirritx, Porrotx eta Marimototsek euren azken lana aurkeztu zuten Hezkuntza Esparruko saioetan.**



**Bakillauaren Kofradixiak Mireya Etxaluze, Nekane Muguruza eta Cesar Huerta egin zituen kofrade.**

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com)

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L

Iker Elorza Beitia

Tel.: 608 30 85 26

e-mail: [legalbide@gmail.com](mailto:legalbide@gmail.com)

**LEGALBIDE**

Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatua





**ION FIZ,**  
**moda-diseinatzailea:**  
"Asko gustatuko litzaidake Eibar KEren kamiseta eta traje ofiziala diseinatzea".

**ESTHER GALARZA,**  
**artista:** "Zeramikarekin azkar lortzen ditut formak eta zeramikarekin bat sentitzen naiz sortzen dudanean, hartu eman naturala da".

**CINDY BIRBERG,**  
**eskubaloai jokalaria:**  
"Eskubaloia lagatzeko asmoa nuenean, inoiz baino indartsuago sartu zen nire bizitzan".



**Herriaren memoria bisuala indartzeko asmoarekin, herriko hainbat tokitan argazki erraldoiak ipintzen hasi dira, Ego Ibarrek bultzatutako ekimenez.**



**Beharginek Alfa ez ixteko borrokarekin jarraitzeko asmoa agertu dute. Etorkizuna jokoan da.**



**"Emon eskua euskeriari" izan zen Euskeraren Eguneko goiburua gurean. Egun biribila irten zen.**

**Beldur Barik** Topaketia hartu eban Eibarrek, izen bereko lehiaketaren harira antolatu eban ekitaldixan. Armagintza-ren Museouak **Santa Barbara** armaginen zaindarixaren eguna ospatu eban. Herriko merkatarixak Gabonetako kanpaina hasi eban, **kalian argixak** ixotuta. Astelena **Haur Parkia** zabaltzen hasi ziran. Gipuzkoako Merkataritza Federaziñuak eta Foru Aldundiak, barriz, Eibarko lehen 'Singular dendak' omendu zittuen. **Andres de Eiguren Orkestrak** proiektu barrixa aurkezteko kontzertua emon eban Coliseo antzokixan. Urte osuan erakusketak antolaten dittuen **Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekuak** erakusketa kolektibua zabaldu eban Portaleko erakusketaretan. Toki berian ikusi leike **Jose Kareagaren** lanari eskindutako erakusketa monografikua. **Liburutegixak** atzera be sarixa jaso dau irakurketia sustatzeko "Maria Moliner" lehiaketan. Kultur Aniztasunaren astia antolatu eban abenduaren 18xa etorkiñen nazioarteko eguna dala gogoratzeko. **EibarLab's** proiektuaren barruan "Irratizkina: Entzun zaitzate!" izeneko egitasmua ipiñi eban martxan Urkizun. **Energixaren Eskualdeko Behatokixa** zabaldu eban Debabarrenian. Udalak **Errebalgo lanen kontratua etetzia** erabagi dabela jakin genduan eta **NAN eta pasaportia tramitatzeko bulegua** urtarrillaren 11n zabalduko dabela be emon eban aditzera. **Argazki historiko erraldoiak** ipintzen hasi dira, antxiñako Eibar gogoratzeko.

Ibarkurutze, 5  
943 20 37 15

altzariak  
koltxojak  
eta sukaldeak

Tel. 943 741 677

Urte Berri On!

50. urteurrena

DARIO bus

www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



**Markel Perez  
(boluntarioa):**  
«Ziur nago nik eman nuena baino gehiago jaso dudala»



**Nerea Arriola  
(biolinista):**  
«Egunero pare bat ordu entseatzan dut gutxienez»



**Romaesa Benslaiman  
(irakaslea):**  
«Klaseak eramangarriak eta dibertigarriak izaten saiatzen naiz»



**La Salleko ikasle talde boluntarioa:**  
«Ondo irteten bada, ziur hurrengo urteetan jarraipena izango duela»



**Jone De Castro  
(atleta):**  
«Nire helburua marka egitea izaten da proba guztietan»




**Nahia Fernandez  
(Bernedon begiralea):**  
«Begiraleak boluntarioak gara eta ilusioak mugiarazten gaitu»



**Gaztetxef lehiaketako irabazleak  
(Leire, Naia, Laura eta Guadalupe):**  
«Guztira hiru plater egin behar izan genituen»



**Nuria Robleño  
(Eco Trendy Weekend-en sustatzailea):**  
«Moda gustatzen zaigu eta zerbait ezberdina egitea nahi genuen»



**Jende Xumea taldeko kideak:**  
«Boliviako errealitatea ezagutzeko eta laguntzeko irrikitan gaude»



**Julen Teran  
(atleta):**  
«Hurrengo erronka 3.000 oztopoetan Espainiako Txapelketara joatea da»



**Iker Oyarbide  
(berbalaguna):**  
«Euskara erabiltzeko aukera ezinhobea eman dit Berbetan-ek»



**Beñat Laskurain  
(Ipurterre-ko irabazlea):**  
"Euskarari errespetua zor diogu eta gure arbasoekin konpromisoa daukagu"



**Axier Gisasola  
(Armeria Eskolako ikaslea):**  
«Gure gaitasun profesionalak eta pertsonalak identifikatu ditugu»



**Agurtzane Moro eta Andrea Garcia  
(Ballet Eibarrés-eko kideak):**  
«Balleta txikitatik barruan sartzen zaizun zaletasuna da»



**Nerea Lluvia  
(Sanjuanetako pegatina-lehiaketako irabazlea):**  
«Larregi edaten dugunean mozolo aurpegia jartzen zaigu»



**Nagore Cabazon eta Alex Davies (musikariak):**  
«Sanjuanetako danborrada txikian jotzen dugu saxofoia»



**Ugaitz Muñoa (Antzinaroko Historia eta Zientzien ikaslea):**  
«Arkeologo lanak egiten dihardugu Kretako Petras kokalekuan»



**Maria Luke eta Xandra Etxabe (On Ekin lehiaketako irabazleak):**  
"Konfidantzazko fisioterapeuta bat berehala aurkitzen lagutzen dugu"



**Izaskun Alberdi (Silenei):**  
"Diseinu soilak izatea gustatzen zait, minimalistak"



**Iker Narbaiza (Energia Berriztagarrien Graduko ikaslea):**  
"Energia berriztagarriak ezinbestekoak ikusten ditut etorkizunera begira"



**Maialen Lado eta Olatz Mandiola:**  
"Aginagako jaietan umeen jolasak antolatzen ditugu eta edozertan lagutzen dugu"



**Oihane Perez eta Itsasne Garate (MIO):**  
"Gure lanak identifikatu gaitzela nahi dugu"




**Iban Garcia (youtuberra):**  
"Dinamikoak izan behar dira Youtubeko bideoak"



**Xabier Narbaiza, Eneritz Arizmendiarieta eta Ane Campos (ONEIÑ):**  
"Bezeroen beharretara egokituko ditugu saskiko produktuak"



**PARRAPAS Erromeria Taldea**  
"Jairik jai ibiltzeko sortu dugu taldea"



**Javier Azpilikueta (Txolarteko begiralea):**  
"Zapatu arratsaldeak konturatu barik pasatzen zaizkigu"



**Joanes Balenciaga (3. SpainSkills-ean):**  
«Ez nuen espero holako lehiaketa bateko podiumera igotzea»



**Mikel Baena (kazetaria Radio Marcan):**  
"Saiatuko naiz eibartarrei beste aukera informatibo bat ematen"



**Viviane Straub (artista):**  
"Jendea argazkiak ikustetik haratago joatea nahiko nuke"



**Miren Martinez (boluntarioa):**  
"Bidaia honetan unibertsitatean baino gehiago ikasi dut"

**BERBETAN** eta **ONGI ETORRI BERBETAN-era** mintzapraktika eta elkarbizitzarako egitasmoen barruan jarduera mordoa antolatu ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak 2017an. **BERBETAN** egitasmoa 2002an jaio zen, eta ahozko euskara maila hobetu nahi dutenei mintzapraktika taldeak eskaintzen dizkie. Azken urteetan, Udalaren babesari esker, programa indartu eta erakargarriagoa egiteko aukera handitu da. Aurreko urtean sortu zen **ONGI ETORRI BERBETAN** egitasmoak ere aurrera egin du 2017an, eta indar gehiagorekin, gainera. Eibarko auzoetan bizilagun taldeak sortu dira, jatorri ezberdinetako auzokideak elkar ezagutzeko, eta gure artera bizitzera etorritakoak euskal kulturara eta euskarara gerturatzeko asmoz. Asteroko saioez gain, egitasmo bietako kideek irteerak eta tailerrak konpartitu dituzte: Sosola baserrira, Olenzoren etxera...

Bestalde, **Txalan Txalan Bikote Linguistiko**-ekin aurrera egin du ...eta kitto!-k Udaleko Gizarteakintza sailaren babesarekin. Helburu nagusiak Eibarko bizilagunen elkar-ezagutza sustatzea eta bikoteen arteko hizkuntza trukaketa dira.

**BERBETAN**-en barruan **"Dendariak eta ostalariak Berbetan"** eta **"Gurasoak Berbetan"** daude. Martxoan "Gilda Lehiaketa"-ren 3. edizioa egin zen, eta "II. Gin-Tonic Lehiaketa" maiatzean. Bestalde, azken edizioetan egindakoaren bideetik, mahaia jarri du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Toribio Etxebarria kalean beherapenen azoketan (Factoring), **Euskaraz Primeran!** kanpainaren harira hainbat jarduera egiteko. Euskarak, zalantza barik, ondo pasatzeko balio duelako, "Barixakuan Jolasian" ekimenean parte hartzen duten guraso eta haurrak hilabeteko azken barixakuetan bildu dira ...eta kitto!-ko lokaletan. Bestalde, herritar guztienezako irekiak izan diren hitzaldiak eta tailerrak antolatu dira **Illunabarrian**-en barruan.

**"Eibarko Udalarekin euskaraz? Erregular!"** kanpainarekin aurrera eginda, urte hasieran 400 txartel eta iman banatu zituen Eibarko Udalak dendari eta tabernarien artean. Biñetan, J.A. Azpilikueta *Supermendikute* eta *Ebarista* personaia ezagunak dendariak eta tabernariak euskaria erabiltzera animatzen agertzen dira. Bestalde, Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan, **"Eibar aldeko euskara hiztegia"** argazki digital lehiaketa antolatu zuen, *"Eibar aldeko euskara hiztegi berba bat, edozein, ondoen irudikatzen duen argazkia hautatzeko lehiaketa"*. Saria Elena Pallegak jaso zuen, "pegora" adierazten duen erretratuari esker.

Bestalde, **Eibar KE-ren** Euskera Plana aurkeztu zuten urtarilean *"oso garrantzitsua delako Eibar bezalako klub batek euskararen erabilpen eta normaltasunaren alorrean aurea hartzea"*.

20. **Korrika**-k apirilaren 7an zeharkatu zuen Eibar, "Batzuk" lelopean.

Maiatzaren 17an ezagutu genituen **Ipurterre** Ipuin Lehiaketako irabazleen izenak: Aurtengo edizioako irabazleak Irene Alonso, Elene Arrazola, Uxue



Ekainaren 22an Guinness errekorra lortu genuen, Eibarren **AKEBAI** plataformaren ekimenez.



Otsailean, Illunabarrian programaren barruan, Mendaroko Txokolate fabrikaren egon ginen.



Ipurterre ipuin-lehiaketako irabazleak sariak jasotzen.



Aurreko urteetan bezala, Gilda eta Gin Tonic lehiaketak antolatu dira Eibarko tabernariarekin elkarlanean, **Euskaraz Primeran** kanpainaren barruan.



Gogoetak, hausnarketak, esperientziak partekartzea... Umoreak ere pisu handia izan zuten maiatzean egin zen Euskararen Transmisioari buruzko Mintegian.



Mintzapraktika taldeak astean behin biltzen dira euskara praktikatzeko.

Eibarko berbalagunen ahalegina saritu zuten Derion egindako Mintza Egunean.



Ikasturte hasieran Berbetan jaialdia egin zen Untzagan.



Txalan Txalan bikote linguistikoaren programak harrera ona izan du.



Abenduaren 3an "Emon eskua euskeriari" goiburuekin ospatu genuen Euskararen Eguna.



ELKAR EKIN lanean 45. ediziora ailegatu dira UEUren Udako Ikastaroak

Baroja, Ane Treviño eta Beñat Laskurain izan dira eta, gelako lagunekin batera, ederto pasatu zuten Hezkuntza Esparruan egindako ekitaldian.

Maiatzaren 23an egin zen **"Euskararen Transmisioari buruzko Mintegia"**, Portaleko Areto Nagusian, ...eta kitto! Euskara Elkar-  
 teak antolatuta. Aurtengoa zazpigarren edizioa izan da, eta euskarari buruzko hainbat ikerketa, hausnarketa, egitasmo eta esperientzia partekatu ziren.

**25 urte** bete ditu aurten **...eta kitto! Euskararen Elkar-  
 teak**. Hori dela eta, ale berezia argitaratu zuen ...eta kitto! astekariak ekainean, "25 urte euskararen alde lanean: eskerrik asko 25 urtez bidelagun izan zareten guztioi" izenburupean.

**Eibarren AKEBAL** plataformaren ekimenez ekainaren 22an Untzagan osatutako irudi erraldoiak **Guinness** errekorra lortu zuen. 2.500 lagunek hartu zuten parte, eta 90 elkarte inguruk adierazi zioten atxikimendua ekimenari. Egun horretako prestaketan 100 bat lagun aritu ziren lanean dena ondo irten zedin. Jendeak denbora guztian umore onari eta jai giroari eustea lortu zuen eta, mosaikoa irudikatuta zegoela ikusterakoan, Untzaga eta inguruko kaleak bete zituen txalo zaparrada ikaragarriak agurtu zuen ekitaldia. Irailaren 20an udaletxeko patioan egin zen bileran **Eibarren Akebai batzarra** eratuta geratu zen. Esparru ezberdinetara lotutako mahaiak eratu ziren eta gidaritzatza lana egingo duen ekipoa osatuko duten kideak ere finkatu zituzten.

**II. Hizkelan** jardunaldia hartu zuen Armeria Eskolak azaroaren 8an. Lan-munduan eta Lanbide Heziketan euskara sustatzeko egiten diren ekimenak eta esperientziak partekatzeko topagunea izan zen.

Eibartarrok eskua eman genion euskerari abenduaren 3an, horixe izan delako, hain justu, euskalgintzako taldeek aurtengo **Euskararen Eguna** ospatzeko aukeratu duten goiburua: "Emon eskua euskeriari". Aurtengoak Eibarren AKEBAL plataformaren babesa eta laguntza jaso du. Auzoetatik hiru kalejira irten ziren, Untzagan zortzi hormairudi osatu ziren, eskuak margoan busti eta oihal erraldoietan inprimatu ziren. Eguerdian 400 lagun bildu ziren karpan egin zen herribazkarian, eta Parrapas erromeria taldearekin dantzari amaitu zen eguna.

Abenduaren 19an Eibarren AKEBAL-k antolatutako "Euskara bidegurutzean, baita Eibarren ere!" hitzaldia eskaini zuen **Kike Amonarriz**ek udaletxeko patioan, hurrengo hilabeteetan garatzen joango den "Hamaika Berbaldi" ekimenari hasiera emanez.

Udalak **"Jira Bueltan: betiko 50 kanta eta jolas"** liburuxka eta DVDa banatu ditu urte amaieran opari gisa Lehen Hezkuntzako 1. mailako umeen familien artean. Badihardugu eta Aho-tsak.eus dira egileak, eta "gure aurreko belaunaldi-jasotako kanta eta jolasak berreskuratu eta biziberritzea" da asmoa.

## Kataluniari begira pasa dugun urtea

Hogei urteko ibileraren ostean Saturnon amaitu zuen bere misioa **Cassini-Huygens zundak** irailean, baina hemen, Lurrean, **Kataluniari begira** pasatu dugun urtea. 2016an independentziarako alde bakarreko bidea hasia erabaki ondoren, Kataluniako parlamentuak autodeterminazio erreferendum loteslearen legea onartu zuen irailean eta gertakariz betetako tsunamia ekarri zuen. Guardia Zibilaren miaketak, politikarien atxiloketak, protestak, mobilizazioak, urriaren 1eko erreferenduma, Piolin, Poliziaren erasoak, greba orokorra, Independentzia Aldarrikapena eta espetxeratzeak izan ziren abenduaren 21eko hauteskundearen aurrekariak. Bertan, Ciudadanosek boto gehienak lortu arren, alderdi independentistek bildu zuten hauteslearen babes handiena.

Aurretik, izua nagusitu zen **Bartzelona eta Cambrilsen**. 19 pertsonak bizitza galdu zuten abuztuaren 17ko atentatuaren ondorioz, baina tamalez ez dira munduan antzeko egoeran heriotza aurkitu duten bakarrik. Urteari ongi etorria ematen ari zirela 39 pertsona hil ziren **Istanbul**eko diskoteka baten gertatutako atentatuaren ondorioz, eta Pakistan, Londres, San Petersburgo, Tailandia, Manchester, Manila, Burkina Faso, Finlandia, Kabul, Las Vegas eta Muqdishon, besteak beste, 500 hildakotik gora egon dira, Siria,

Yemen eta beste hainbat herrialdeetako gudak albo batera utzita. Gurean, bestalde, bakearen bidea jarraitzen da, eta **Bakearen Artisauen** bidez ETaren armagabetzea gauzatu zen apirilaren 8an Baionan.

Frantziar estatuak **Emmanuel Macron** izendatu zuen presidente maiatzean eta urtarrilean **Donald Trump**ek Ameriketako Estatu Batuetako presidente izateko zinak munduko zimenduak astindu zituen.

**Modu literalean mugitu zirenak** Mexikoko lurrak izan ziren. Irailaren 7an Chiapasen gertatutako lurrikaran ehun pertsona inguruk bizitza galdu ostean, 369 pertsona hil ziren Mexiko Hirian eta inguruko hirietan irailaren 19ko lurrikaran, Mexiko Hiria astindu zuen lurrikararen 32. urteurrenaren egunean. Harvey, Irma, Jose eta Maria urakanek ere txikizioak eragin zituzten euren bidean; eta Portugalgo mendiak erretzeaz gain, 61 hildako eragin zituen suak.

Historiaren bidea aldatu zuen **Errusiako Iraultzak 100 urte** bete zituen, eta hortik edan zuen Ernesto 'Che' Guevarak orain dela 50 urte utzi zuen fisikoki mundu hau. Aurten utzi gaituzten artean Chuck Berry eta Tom Petty musikagileak; Roger Moore, Martin Landau eta Adam West aktoreak; Chiquito de la Calzada espainiar aktore, abeslari eta umorista; Michele Scarponi txirindularia; Ueli Steck eta Al-



ETAren armagabetzea gauzatu da Bakearen Artisauen eskutik.



Suak ezustean harrapatu zituen Portugalgo errepide honetan zebiltzan autoak.



358 pertsonak galdu zuten bizia Somaliako historiako atentaturik gaiztoenean.



400dik gora hildako izan ziren irailean Mexikon izandako lurrikaratan.



Autodeterminazio eskubidearen alde bete dira Kataluniako kaleak behin eta berriz azken urtean.



Cassini-Huygens zunda Saturnoko atmosferan desegin zen 20 urteko misioaren ondoren.



Norvegiak agur esan dio irratiko FM seinaleari eta modu digitalean entzun ahal izango da orain.

berto Zerain alpinistak; Nicky Hayden eta Angel Nieto motoziklismoko pilotuak; Carme Chacon politikaria; Ion Arretxe arte zuzendari, marrazkilaria, idazle eta aktorea; eta Hasier Etxebarria idazle eta kazetaria aurkitzen dira, besteak beste.

Inoiz baino biziago dagoena **Korrika** da. Aurten Otxandio eta Iruñea lotu zituen martxak eta milaka euskaldun ibili zen arineketan euskararen alde. Euskararen erabilera tre-bea erakutsi zuena **Maialen Lujanbio** izan zen, eta aben-

duaren 17an **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia** eskuratu zuen bigarren aldiz.

Beste artista batzuei, ordea, ez diete ahoa zabaltzen utzi. Espainiar estatuko auzitegiak abeslari, kazetari eta txiolariz bete dira aurten, eta horietako batzuk kartzelaratu dituzte **Mozal Legearen** ondorioz. Han daude oraindik **Altsasuko gazteak** ere, 400 egun baino gehiagoren ostean epaiketa baten zain.

**GAUR**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA  
KONPONKETA  
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN  
AUTOMATIKOAK ETA  
BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea  
Telefonoa 943 20 62 40

carmen@egaur.com  
Faxa 943 05 69 23

Laguntza Teknikorako  
Zerbitzu Ofiziala

**EIBARSAT**


Elektrodomestiko txikien mikrouhinen  
konponketa, musika kateak,  
sukaldeko menajea,  
elektrodomestiko txikien piezak,  
eta abar...

IFAR KALE 8  
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17  
20600 EIBAR

# EIBARKO KIROL SARIEN XXIII. edizioa

Etzi, domeka, abenduaren 31n, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Hogeitahirugarrena izango da oraingokoa. Coliseoan, eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute. Modalitateei dagokienez, 25 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia izango dira, 50 urte betetzeagatik herriko Urpekoei emango zaionarekin batera. Guztira, beraz, 29 sari. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

## SARI BEREZIA



**Odei Jainaga**

Eibarko Klub Deportiboa

## ATLETISMOA



**Julen Teran**

Eibarko Klub Deportiboa

## AUTOMOBILISMOA



**Gari Rguez / Unai Flores**

Escuderia Eibar

## ERRUGBIA



**Gorka Moya**

Eibar Rugby Taldea

## ESKIA



**Naia Saez / Elene Gisasola**

Eibarko Klub Deportiboa

## ESKUBALOIA



**Mikel Zabala**

Eibar Eskubaloia

## FITNESS



**Aitor Alfonso**

AAT

## FOBALLA



**Julen Lopez**

Eibar Kirol Elkarte

## GIMNASIA ERRITMIKOA



**Infantil Taldea**

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

## GOLFA



**Juan Luis Tueros**

Eibar Golf Pitch & Putt

## HERRI KIROLAK



**Alkideba**

Eibarko Euskal Jokoak

## HIRU TXIRLO



**Josean Urkia**

Asola Berri

## IGERIKETA



**Ander Salaberria**

Urbat-Urkotronik



# abenduak 31, domeka, 12.00etan, COLISEOAN

## JUDOA



**Hegoi Esteban**

Judo Kalamua

## KARATEA



**Jesus Castillo**

Urki-Amaña


## MENDIA



**Egoitz Elduaen**

Eibarko Klub Deportiboa

## PILOTA



**Mikel Sarasua**

Eibarko Klub Deportiboa

## SASKIBALOA



**Aitor Azurmendi**

Katu Kale

## SILBESTRISMOA



**Jose Angel Amesti**

Eibarko Karnaba Zaleak

## SQUASH



**Alberto Ferreira**

Eibarko Klub Deportiboa

## TIRO OLINPIKOA



**Bernardo Perez**

Club Tiro Dinbi-Danba

## TRIATLOIA



**Igor Atxa**

Delteco Eibar Triatloi Taldea


## TXIRRINDULARITZA



**Ander Gutierrez**

Eibar Energia Debarrena

## WATERPOLOA



**Erika Santamaria / Aroa Peña**

Urbat-Urketronik

## WU-SHU



**Iñigo Arizaga**

Ttatt Gimnasioa

## XAKEA



**Adrian Martinikorena**

Eibarko Klub Deportiboa

## SUSTAPENA



**Delteco**

Eibar Triatloi Taldea

## IBILBIDEA - 50 URTE



**Eibarko Urpekoak**

SCR Arrate - CD Eibar

## EUSKERA SARIA




**Pilota Batzordea**

Eibarko Klub Deportiboa



**VIRGINIA ARAKISTAIN:** 2018 urte berri eta freskoak atek zabaltzen dizkigu.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



**Gabon Zahar Feria ELGOIBARREN**

Aurten ere nekazaritza eta abeltzaintza feria tradizionala egingo dute Elgoibarren urteko azken zapatuan, abenduaren 30ean. Ehun saltokitik gora jarriko dira bertako produktua erakutsi eta saltzeko, goizeko 8:30etatik aurrera. Baserritarrak Kalegoen plazan egongo dira eta Bolatokiko parkean, Lekueder eta Kalebarren plazan, berriz, abereen erakusketaz gozatzeko aukera izango da. Maalako parkean artisauak egongo dira (10:00etatik 14:30era) eta Aita Agirre plazan, 11:00etatik 14:30era, falkoneria erakustaldia egingo dute. Eguna girotzen, Baltzola Anaiak, Elgoibarko Kale Kantariak, erromeria... ibiliko dira. Gazta Lehiaketa ere egingo da, parrillan erretako Eusko Labeldun haragi pintxoak eta taloak eskainiko dituzte eta parrokiako Jaiotza mekanikoa egun guztian zehar ikusi ahal izango da.

**Olentzeroren kalejira ERMUAN**

Herri guztietan kalejira ibili eta gero, abenduaren 31an bigarren joango da Olentzero Ermura, Txindurri taldearen eskutik kalejira egitera. Herriko kaleetatik ibiliko da Olentzero, 18:00etatik aurrera.

**Zoro Feria DEBAN**

Betiko moduan, urteko lehen zapatuan ospatuko dute, hau da, oraingoan urtarrilaren 6an. Egun osoko egitarauan, azoka, dantzak eta idi-demak izango dira, musikaz alaituta.

**hildakoak**

- Venerando Fernandez Villar. 71 urte. 2017-XII-22.
- Juana Garcia Garretas. 93 urte. 2017-XII-22.
- Jesusa Irastorza Agirrebeña. 93 urte. 2017-XII-22.
- Antonio Alonso Arrizabalaga. 91 urte. 2017-XII-23.
- Miguel Aizpiri Larrañaga. 84 urte. 2017-XII-24.
- Nekane Vielva Loiolaa. 69 urte. 2017-XII-27.

**jaiotakoak**

- Maider Gutierrez Carrasco. 2017-XII-13.
- Julen Eduardo Paccha Gomez. 2017-XII-19.
- Adam El Moussaoui Moossa Yakhlef. 2017-XII-22.

**SUDOKUA**

AURREKOAREN EMATZA

6	3	9	4	7	8	1	5	2
1	4	2	6	5	3	8	7	9
7	8	5	9	2	1	3	6	4
5	2	1	8	3	6	9	4	7
3	6	4	7	9	2	5	8	1
8	9	7	5	1	4	2	3	6
4	1	3	2	8	7	6	9	5
9	7	8	1	6	5	4	2	3
2	5	6	3	4	9	7	1	8

	4		9					2
9					3		1	4
		6		4				
5	3			7				
		1	8		9	7		
				2			3	9
				9		4		
8	6		2					7
2					4		6	

**farmaziak**

- Barixakua 29  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 30  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 31  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 1  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Martitzena 2  
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Eguaztena 3  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguena 4  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 5  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 6  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Domeka 7  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 8  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 9  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 10  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 11  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 12  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
Mandiola (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2018AN-  
Lafuente (Sostoatarren, 10)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 29

### GABONETAKO AZOKA

**11:00/14:30 eta 17:00/20:30.** Eibart 13. Azoka. Untzagan.

### ANTZERKIA

**17:00.** "Gu" (Borobil). 5 euro. Coliseoan.

### GABONAK AMAÑAN

**19:00.** Bierzoko ardo eta produktuen dastaketa. Raul Perezen ardoak (Jantaedan tabernak antolatuta).

## Zapatua 30

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### GABONETAKO AZOKA

**11:00/14:30 eta 17:00/20:30.** Eibart 13. Azoka. Untzagan.

### TAILERRA

**17:30.** Umeendako eskulanak. El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

## Domeka 31

### GABONETAKO AZOKA

**11:00/14:30 eta 17:00/20:30.** Eibart 13. Azoka. Untzagan.

### XXIII. EIBARKO KIROL SARIAK

**12:00.** Eibarko kirolariei saria banatzeko ekitaldia, ...eta kitto! astekariaren eskutik. Coliseoan.

### GABONAK AMAÑAN

**12:00.** Txikiteoa, kiskilla eta cavarekin.  
**19:00.** Triki-poteoa auzoan (Amañako tabernak antolatuta).

### SAN SILBESTRE

**16:15.** XXVII. Aixola San Silbestre herri lasterketa.

## Astelehena 1

### GABONAK AMAÑAN

**08:30.** Urkora igoera, Amañatik abiatuta.  
**11:00.** Salda eta txorizoa. Amaña es la Caña-k antolatuta.

### URKORA IGOERA

**09:00.** Urte berriari ongietorria emateko Urkora igoera. Irteera Klub Deportibo paretik.

## Martitzena 2

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### GABONETAKO AZOKA

**11:00/14:30 eta 17:00/20:30.** Eibart 13. Azoka. Untzagan.

### MUSIKA

**17:00.** Euskal Herriko Gazte Orkestraren entsegu irekia, nahi dutenentzat (doan). Hezkuntza Esparruko aretoan (Unibertsitate Laboralean).

## Eguaztena 3

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### GABONETAKO AZOKA

**11:00/14:30 eta 17:00/20:30.** Eibart 13. Azoka. Untzagan.

### GABONAK AMAÑAN

**19:00.** Garagardo dastaketa (Azkena tabernak antolatuta).

## Eguena 4

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### GABONETAKO AZOKA

**11:00/14:30 eta 17:00/20:30.** Eibart 13. Azoka. Untzagan.

### GABONAK AMAÑAN

**Egunean zehar.** Kazuelatxo txapelketa, tabernetan (Amañako tabernariak antolatuta).

## Barixakua 5

### GABONAK AMAÑAN

**17:00.** Erregeen kabalgata ikusteko taldean jaitsiko dira Amañatik.

### ERREGEEN KABALGATA

**17:00.** Ipurua Dantza taldearen eta Gimnasia Erritmika taldearen ikuskizunak, kiroldegian.  
**19:00.** Erregeen kabalgata, Eibarko Musika Bandaren laguntzarekin. Untzagatik abiatuta.

## Zapatua 6

### GABONAK AMAÑAN

**11:00.** Salda eta txorizoa (Amaña es la Caña-k antolatuta).

## Domeka 7

### GABONAK AMAÑAN

**18:00.** Umeendako txokolatea eta Gabonetako arbolaren argiak itzaltzea. Amaña es la Caña-k antolatuta.

### MUSIKA

**19:30.** El Twanguero gitarrajolearen emanaldia. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.

## Astelehena 8

### INAUGURAZIOA

**19:30.** Pello Mariñelarena zenaren "Guk ibilitakoak gureak dira" erakusketaren inaugurazioa. Topalekuan.

## Martitzena 9

### HARIXA EMOTEN

**19:00.** Jose Inazio Basterretxearen "Begoñaren itzalpean" nobela aztertuko dute irakurleek. Portalean.

## Eguena 11

### INAUGURAZIOA

**19:30.** "Eibarko koloreak" kulturarteko erakusketaren inaugurazioa, Maroko, Nepal eta Senegalgo musika eta gastronomiaz giroturik. Armagintzaren Museoa.

## Erakusketak

### Abenduaren 29ra arte:

– "XV. URTEURRENA ION FIZ GOI-MAILAKO JOSKINTZAN". (Armagintzaren Museoa)

### Urtarrilaren 7ra arte:

– EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA. (Portalean)

– "JOSE KAREAGA - ARTISAU/ARTISTA 1930-2008". (Portalean)

– ESTHER GALARZAREN ZERAMIKA. (Topalekuan)

### Urtarrilaren 8tik 12ra:

– PELLO MARIÑELARENAREN "GUK IBILITAKOAK GUREAK DIRA". (Topalekuan)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JARE, atzo 2 urte bete zenduazena eta. Txokolate zapozeko patxo goxuak, printzesa, maite zaituen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MALEN, bixar 6 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Aiora zure ahiztiaren partez.



Zorionak, ANE Plazaola, urtarrillaren 5ian 5 urte beteko dozuz-eta. Ondo ospatu! Famelixa eta osaba Pedrorren partez.




Zorionak, MANEX, hillaren 27xan 7 urte bete zenduazelako. Famelixaren eta, batez be, Ametsen partez.



Zorionak, ALICIA, abenduaren 31n urtiak egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAX eta MARKEL, abenduan 11 eta 6 urte egin dozuezelako. Patxo potolo asko famelixaren partez!



Zorionak, IKER (urtarrillaren 11n) eta IÑIGO (urtarrillaren 5ian), urtiak beteko dozuez-eta. Ondo-ondo ospatu. Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.


Datorren astean ez da alerik izango  
**Hurrengo alea urtarrilaren 12an**

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)  
**30ean: 19:45, 22:30**

**"Perfectos desconocidos"**

Zuzendaria: Alex de la Iglesia



(1 ARETOAN)  
**30ean: 17:00**  
**1ean: 20:30**

**"Jumanji. Bienvenidos..."**

Zuzendaria: Jake Kasdan



(2 aretoan)  
**30ean: 22:30**  
**1ean: 20:30**

**"El viaje"**


Zuzendaria: Nick Hamm



(ANTZOKIAN)  
**30ean: 17:00, 19:45, 22:30**  
**1ean: 20:30**

**"Wonder Wheel"**

Zuzendaria: Woody Allen





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Apartamentua salgai edo alokagai Polonia Etxeberria 14, behean. Estreinatzeko. Tel. 649-935239.
- Pisua salgai erdialdean. 99 m<sup>2</sup>. 1. solairuan, kontsulta edo bulegoetarako egokia. Pegora berriztua. Merke. Tel. 656-723437.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-463828.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Gazteendako lokala alokatzen da Jardina, 34an. Jarduerarako lizentziarekin. Inguruan etxerik gabe. Instalazio berriak. Aireztapena eta argi naturalarekin. Tel. 656-756485.
- Lokala alokagai Birijñape 1-ean, erosteko aukerarekin. 33 m<sup>2</sup>. Guztiz konponduta. Alokatzeko: 460 euro. Saltzeko: 100.000. Tel. 688-678934.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: bulegoak, tabernak, pegoarak, lokalak... Tel. 632-558402.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan. Tel. 603-743240.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-821546.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-259146.
- Neska eskaintzen da umeak, helduak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 642-416503.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako: nagusiak, umeak edo helduak. Tel. 602-347678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 612-493242.

- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako: nagusiak, umeak edo helduak. Tel. 631-654967.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-655390.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-041526.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 631-155993.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-706846.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-502177.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka edo arratsaldez. Tel. 646-821678.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduetegi zabala. Tel. 631-343232.

- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Tel. 657-479770.

- Emakume langile eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko (etxean edo ospitalean) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 603-514085.

- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-551711.

- Mutil langilea eskaintzen da sukaldelaguntzailer moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 622-321095.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Erreferentziak. Tel. 677-868887.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 600-836168.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Esperientzia. Tel. 632-174225.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 629-889465.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduetegi zabala. Tel. 643-032205.

- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 648-803352.

- Mutila eskaintzen da piezak muntatzeko eta garraiolari moduan jarduteko. Esperientzia. Tel. 651-038503. Ibon.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduetegi zabala. Tel. 631-167908.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta formazioa. Tel. 602-161496.

## 4.2. Langile bila

- Ilepaintzailea behar da ilepaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-256591
- Kamareroa behar da Soruluzen jornada osorako. Tel. 943-750030 eta 670-541347.
- Pertsona behar da alzheimerria duen emakumea zaindu eta etxeko lan bat edo beste egiteko. 40 orduko kontratua, astelehentik zaptura. Betebeharrak: esperientzia edo kualifikazio ikastarota eta Eibarren bizitzea. Tel. 617-759814.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- DBHko ikasleak irakasle partikularra behar du etxean ikasteko. Tel. 616-379390.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Programatu daitekeen Ecotermic salgai. 13 elementurekin. "Color Azul". Tel. 626-144098.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Cometa Fenix 400 haizezko karabina salgai. Kutxa eta guzti. Ia berria. Tel. 688-803449.
- Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilia. Tel. 635-746250. Ana.
- Bi bizikleta salgai, 12-16 urte bitartekoentzat. Gutxi erabilia. 100 euro bakoitza. Tel. 650-022371. Itziar.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Motxila beltza galdu dut (Milan markakoa). Barruan lkastolako materiala dauka. Tel. 652-761387.
- Kartera bat, diruarekin, aurkitu nuen Urkizu parkean. Tel. 943-120077.

# ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11

943 20 03 84 *Haurreskolak*

orbea.eibar@haurreskolak.eus

*Badira plaza libreak*



*Etorri eta galdetu!*



**URTE BERRI ON!!**

# www.etakitto.eus

# WEB



herriko albisteak, argazki-bildumak, bideoak,  
komunitatea, agenda, eguraldia, farmaziak...



# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)